

EKOSISTEMA BAT IKERTZEN: AZPEGIKO ZOIKAZTEGIA



Apirilaren 30ean, DBHI Otsagabia eta Garraldako DBH ikastetxeetako DBH 4. mailako zientzia ataleko ikasleak Iratiko Biosfera Erreserba barruko ekosistema bat ikertzera joan ginen, Azpegiko gainara.

Azpegiko gainean dauden Paleozoiko material iragazkaitzetan zoikaztegiak garatzen dira, eta ekosistema horiek aukera paregabea eskaintzen dute ikerketa zientifikoa egiteko.

Hasieran, laginketa egiteko gunea prestatu genuen. 80 metroko trantsekto batean 8 puntu identifikatu genituen, eta, 8 ikasle zirenez, bakoitza puntu baten laginketa osoaz arduratu zen.

Puntu bakoitzean, trantsektoaren metro batean agertzen ziren landare espezieak identifikatu eta zenbatu genituen.



Horrez gain, trantsektoaren bi aldeetara kuadratak bota genituen, landare espezieen presentzia eta estaldura portzentajeak identifikatzeko eta neurtzeko.



Gune horretako uraren eta airearen temperatura neurtu genituen. Ondoren, hainbat datu kimiko bildu genituen: urgunearen pH-a, eroankortasuna, TDS-a eta disolbatutako oxigenoa neurtu genituen. Era berean, lurzoruaren pH-a eta hezetasuna ere aztertu genituen.

Horretarako, laborategi-mahai bat jarri genuen laginketa gunearen ondoan, nahiz eta neurketa batzuk zuzenean puntu bakoitzean egin genituen.



Datu guztiak aztertu ondoren, poster zientifiko bat igoko dugu eraikitzen ari garen **Irati Biosfera Erreserbaren webgunera**.

Zoikaztegiak funtsezko ekosistemak dira sostengarritasunaren ikuspegitik, izan ere, ur edangarria metatu eta modu naturalean iragazten dute, etorkizuneko belaunaldientzat baliabide hori bermatuz. Gainera, biodibertsitatearen babesleku dira eta klima-aldaketaren aurkako orekan laguntzen dute. Horregatik, ekosistema hauen kontserbazioa eta erabilera arduratsua ezinbestekoak dira gure ingurumenaren eta ur-baliabideen iraunkortasuna ziurtatzeko. Zaindu ditzagun gaur, biharko ongizatea bermatzeko!

INVESTIGANDO UN ECOSISTEMA: LAS TURBERAS DE AZPEGI



El 30 de abril, el alumnado de 4.º de ESO del área de Ciencias de los centros IESO de Otsagabia y Garralda realizó una salida de investigación a un ecosistema situado en la Reserva de la Biosfera de Irati, concretamente en el alto de Azpegi.

En los materiales impermeables del Paleozoico presentes en esta zona se desarrollan turberas, unos ecosistemas de gran valor ecológico que ofrecen una oportunidad única para la investigación científica.

En primer lugar, se delimitó la zona de investigación. A lo largo de un transecto de 80 metros se establecieron ocho puntos de muestreo, y cada alumno o alumna se encargó de realizar de forma individual el estudio completo de uno de ellos.

En cada punto se identificaron y contabilizaron las especies de plantas presentes en un metro del transecto.



Además, se realizaron dos lanzamientos de quadrats a ambos lados del transecto con el objetivo de identificar las especies vegetales

presentes y estimar su cobertura, expresada en porcentajes.



Se registraron tanto la temperatura del agua como la temperatura ambiental en la zona de estudio. A continuación, se recogieron distintos parámetros químicos del agua, entre ellos el pH, la conductividad, el TDS y el oxígeno disuelto. Asimismo, se analizaron el pH y la humedad del suelo.

Para llevar a cabo estas mediciones, se instaló una mesa de laboratorio junto al área de muestreo, aunque algunas de las determinaciones se realizaron directamente en cada punto de estudio.



Una vez analizados todos los datos, los publicaremos en la página **web de la Reserva de la Biosfera de Irati**, actualmente en construcción, mediante un póster científico.

Las turberas son ecosistemas clave desde el punto de vista de la sostenibilidad, ya que acumulan agua potable y la filtran de forma natural, garantizando este recurso para las generaciones futuras.

Además, sirven de refugio a la biodiversidad y contribuyen al equilibrio contra el cambio climático. Por ello, la conservación y el uso responsable de estos ecosistemas son indispensables para asegurar la sostenibilidad de nuestro medio ambiente y de los recursos hídricos. ¡Cuidemos de ellos hoy para garantizar el bienestar del mañana!